



2019 sagardo sagarraren heldutasunaren egoera

📅 Ira 17, 2019 🌐 Sagarra 💬 0 comments



Aurreko urteetan bezala, Fruitel eta Sagardoaren Lurraldearen 2019 uztako XIX. sagardo sagarraren heldutasunaren txostena aurkezten dugu. Txostenaren puntu nagusiak hauek dira:

- Aurreko urtearekin konparatuta heldutasuna pixka bat atzeratuagoa dator.
- Ekoizpena, orokorki, oso altua da.
- Hori dela eta, sagasti askotan adar eta enborra asko hautsi dira eta sagarren neurria txikiagoa da, barnekaldean bereziki.

Iraila hasieran eta azken urteetan bezala, Gipuzkoako sagasti ezberdinetan kontrol bat egin da, sagarren egoera zein den jakin ahal izateko.

Honetarako, Gipuzkoako zenbait sagasti jarraitu ditugu eta 14 barietate kontrolatu dira: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria.

Aurten loraldia oparoa eta luzea izan da. Udaberria oso euritsua eta uda oso beroa izan dira.

Ekoizpena, orokorki, oso altua da. Hori dela eta, sagasti askotan adar eta enborra asko hautsi dira eta sagarren neurria txikiagoa da, barnekaldean bereziki.

Aurten arjoaren erasoak irregularrak izan dira, barnekaldean eragin handiagoa izanik. Aurreko urtearekin konparatuz, tximeleten hegaldien uneak definituagoak izan dira leku gehienetan.

Tratamenturik gabeko sagastietan kalteak garrantzitsuak izan direlarik.

Sagarraren heldutasuna

Heldutasun kontrola iraileko 2. astean egin da, aurreko urteetan bezala. Heldutasuna neurtzeko bi modu erabili ditugu: lehenengoan, azukre maila jakiteko, sagarren indize refraktometrikoa (°Brix) neurtu da; eta bigarrenean, almidoiaren erregresioa jakiteko, iodo indizea neurtu da, 1-10 eskalan, Europako araudiari jarraituz.

Indize refraktometrikoa – °Brix

2019 urteko °Brix datua, 10,5koa da, aurreko urtekoa baino baxuagoa

Barietatez bariedade begiratuta, aurtengo kontrolean °Brix altuena Goikoetxe eta Mozolua 11,3 °Brixekin dute. Aldiz, baxuena, Manttonik 10,3 °Brixekin eman ditu.

Almidoiaren erregresioa

Hurrengo grafikok almidoiaren erregresioaren garapena ikus dezakegu. Aurtengo datua aurreko urtekoa baino zertxobait baxuagoa da, 3,5ko indizea eman baitu.

Goikoetxe bariedade alde batera utzita, erregresio altuenak Patzoluak 6,1ekin, Gezamina 4,2ekin, Mozolua 4,1ekin eta Aritza 4ekin izan dituzte. Aldiz, Errezila eta Moko 1,4ekin erregresio baxuenak izan dituzte. Aipatzekoa da Txalakaren aurtengo portaera: 2018an 4,3ko datua eman ondoren, aurten 2,7koa eman du.

PUNTU GARRANTZITSUENAK:

Orokorrean, 2019ko iraila hasieran, sagastietan azaldu diren zenbait puntu berezi ditzakegu:

- Aurreko urtearekin konparatuta heldutasuna pixka bat atzeratuagoa dator.
- Azukre maila aztertuz, aurtengo urteak, batz bestek 10,5 °Brix ditu, aurreko urtean baino zazpi hamarrek baxuagoa.
- Almidoiaren erregresioa 3,5ko indizean dago, hau da, aurreko urtean baino 3 hamarrek baxuagoa.
- Heldutasun datuak ikusita (almidoiaren erregresioaren arabera) Goikoetxe bariedade kenduta, 3 bariedade talde ikus daitezke:
 - Aurreratuenak: Patzoluak, Gezamina, Mozolua, Aritza eta Urtebi Txiki.
 - Erdikoak: Manttoni, Txalaka, Urdin, Verde Agria eta Urtebi Haundi.
 - Atzeratuenak: Errezila, Moko eta Udare Marroi.

[Eskuratu heldutasunarentxostena PDF formatuan](#)

AITOR ETXEANDIA AZPIAZU – SAGARLAN S.L

Fruitugintzan Aholkularia, 2019ko irailaren 10ean

Bilatzailea

Bilatu

Kategoriak

- Agenda
- Argitalpenak
- Azokak
- Berriak
- Ekitaldiak
- Erakusketak
- Esperientziak
- Formazioa
- Gastronomia
- Historia
- Kultura
- Lehiaketak
- Museoak
- Sagardoa
- Sagardotegiak
- Sagarra
- Sagastia
- Turismoa

Artxiboak

Hautatu hilabetea▼

ZATOZ ETA GOZATU



Kale Nagusia, 48
20115
Astigarraga
Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

Sagardo Forum

Jardunaldi teknikoak

Nazioarteko Sagardo Lehiaketa

Nazioarteko Sagardo Azoka

Izen ematea

Talde teknikoa, hizlariak eta epaileak

Prensa bulegoa

Aurreko edizioak

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

Boletina

Buletinera harpidetza

Sare sozialak

**EUSKADI**
BASQUE COUNTRYGipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua

LEGEZKO INFORMAZIOA

NOR GARA

PROIEKTUAK

AKORDIOAK

KONTRATATZAILEAREN PROFILA

